## 7

HILAK **7** | OSTIRALA | **20:00etan**

# Mikele

**Ekhiñe Etxeberriarena** (Nafarroa, 2018, 45')

Caracola Alcances film ertain onenaren saria, Cadizko "Alcances" Zinema Dokumentalaren Jaialdiaren 50. edizioan (2018); film ertain dokumental onenaren saria, Bartzelonako Premio Festival de Cinema i Drets Humans jaialdian (2018); eta aipamen berezia, Documenta Madriden (2018) eta Alcancesen, Docmaren aldetik (2018).

Mikele 16 urteko neska gazte bat da, transexuala, Uharten bizi dena, Nafarroan. Gaztearen izena izenburu duen dokumental honetan, bere trantsizio-prozesuaz hitz egiten du, naturaltasunez, eta, adierazten duenaren arabera, familiaren eta lagunen babesa funtsezkoa izan da prozesu horretan.

**Ekhiñe Etxeberria**. Zuzendari eta gidoilari nafarra. Zinemako eta Bideoko Goi Mailako Gradua eta Zinematografiako Gradua ikasi zituen, espezializazioa dokumentalen zuzendaritzan eginez. *Mikele*, hain zuzen, gradu amaierako lana da. *Amaren bularra, haurraren janari* (2014) eta *Nortasuna* (2015) dokumentalak zuzendu ditu, eta *Amor* (2015) eta *Ausencia* (2015) dokumentaletan soinu-zuzendari aritu da.

Hizketaldira gonbidatuak: Ekhiñe Etxeberria (zuzendaria), Mikele Grande (dokumentalaren protagonista) eta Pilar Miqueo, doktorea Psikologian, sexologoa, aditua generoan eta Nafarroako Gobernuaren *Nafarroako transexualei laguntzeko eta arreta emateko gidaliburua* gidaren egilekidea.

## 10

HILAK **10** | ASTELEHENA | **11:00etan eta 20:00etan**

# Sir

**Rohena Gerarena** (India eta Frantzia, 2018, 96')

Gan Foundation saria banaketari, Cannesko 71. edizioko Kritikaren Astean (2018); Sari Handia eta Ikusleriaren Saria, Donibane Lohizuneko nazioarteko Film Festival jaialdian; Amsterdam Film Festivalen; Mill Valley Film Festivalen; eta Cabaourgeko Festival du Filmen (2018).

Ratna, probintzietako gazte alargun bat, Mumbaira iritsiko da, Ashwinen etxean neskame-lanak egiteko. Arkitektoen familia ezagun bateko semea da Ashwin, eta zoritxarra izan du ezkontza-proiektuan. Gertatutakotik bere onera etortzen saiatzen den bitartean, Ratnarekin maitemintzen hasiko da, baina Ratnak, bien kastak desberdinak direla jakitun, badaki egoera hori ez dela erraza izango eta zalantza du aurrera pausoa egin edo ez.

**Rohena Gera**. Zuzendaria eta gidoilaria. Stanfordeko Unibertsitatean eta Sarah Lawrence Collegen ikasi zuen, AEBetan. Rohena Gerak debuta egin zuen gidoilari lanetan Indiako telebistako *Jassi Jaissi Koi Nahin* telesailean, eta herrialde horretako zinemarako *Kuch Naa Kaho* (2003) eta *Thoda Pyaar Thoda Magia* (2008) lanen gidoiak idatzi ditu. 2013an, bere lehen dokumentala idatzi eta zuzendu zuen, *Zer zerikusia du maitasunak horrekin?* Mumbaiko Zinema Jaialdian hautatu zuten. *Sir*, bere lehen film luzea da.

Hizketaldira gonbidatua: Emilia Arias, kazetaria, aditua generoan eta espezialista nazioarteko informazioan. TVEn lan egiten du, eta *Pikara Magazine* aldizkari feministako kolaboratzailea da. *La Solidaridad en tiempos de crisis* (2014) eta *La revolución de las agujas* (2018) lanak eman ditu argitara, Indiari eta bertako emakumeei buruz.

## 11

HILAK **11** | ASTEARTEA | **11:00etan eta 20:00etan**

# El pan de la guerra

**Nora Twomeyrena** (Irlanda, 2017, 93')

Epaimahaiaren Saria, Ikusleriarena eta Musika Onenarena Annecyko jaialdian (2017); Annie sariak film independente onenari (2017). Izendatua Animaziozko Film Onenaren sarirako, Europako Zinemaren Sarietan (2018); Oscar sarietan; Urrezko Globoetan; Critics Choice Awards; Los Angelesko Kritikarien Elkartea; Chicagoko Kritikarien Elkartea; eta Satellite Awards (2017).

Parvana 11 urteko neskato bat da, Kabulen bizi dena, talibanen erregimenean. Aita atxilotu ondoren, Parvanak mutil bihurtzeko premia izango du lan egin ahal izateko, emakumeek debekatuta baitute dirua irabaztea, bakarrik joatea azokara... Izen bera duen eta zenbait literatura-sari eskuratu dituen liburu batean oinarritua, Afganistanen aldi horretan emakumeek izan zuten egoerari heltzen dio filmak.

**Nora Twomey**. Zuzendaria, gidoilaria, animatzailea, ekoizlea eta aktorea. Cartoon Saloon animazio- eta ekoizpen-estudioko bazkidea da. Filmografia nabarmendua: *From Darkness* (2002), *El secreto del libro de Kells* (2009), *Escape of the Gingerbread Man* (2011) eta *La canción del mar* (2015).

Hizketaldira gonbidatua: Olga Rodríguez, kazetaria eta idazle espezializatua nazioarteko informazioan eta Giza Eskubideetan. Ekialde Ertaineko zenbait herrialdetan, AEBetan eta Mexikon lan egin du. Beste kide batzuekin *diario.es* sortu zuen. Bere informazio-lanak sari ugari jaso du, bere gizarte-konpromisoarengatik. Besteak beste, hauek idatzi ditu: *Aquí Bagdag. Crónica de una guerra; José Couso, la mirada incómoda* (2004) eta *Yo muero hoy. Las revueltas en el mundo árabe* (2012).

## 12

HILAK **12** | ASTEAZKENA | **11:00etan eta 20:00etan**

# La (des)educación de Cameron Post

**Desiree Akhavanena** (Ameriketako Estatu Batuak, 2018, 91')

Epaimahaiaren Sari Handia Sundanceko Jaialdian (2018) eta Espiga de Plata saria Valladolideko Zinemaren Nazioarteko Astean (Seminci, 2018). Izendatua Film Onenaren sarirako Sidneyko Zinema Jaialdian (2018); Film Onena Seattleko Nazioarteko Zinema Jaialdian (2018); eta izendatua LGTBQ Film Onenaren sarirako nazioarteko Molodist jaialdian (2018).

1990. Gurasoak hil eta gero, Cameronek, hamabi urte dituen eta Montanakoa den gazte batek, aitaren aldeko amona zaharkituarekin eta Ruth izeba ultrakontserbadorearekin bizitzera joan beharko du. Neskaren bizimodua are gehiago zailduko da, gainera, neska den bere lagun onenarekin musukatzen ikusi eta gero, homosexualak errehabilitatzeko zentro batera joatera behartzen dutenean. Han, Cameronek borroka egingo du bera izateko.

**Desiree Akhavan**. Zinema-zuzendaria, ekoizlea, gidoilaria eta aktorea, jatorri irandarra-estatubatuarra duena eta New Yorken bizi dena. Akhavanek antzerkia eta zinema ikasi zuen Smith Collegen. Gradua lortu eta gero, zinema-zuzendaritza ikasi zuen New Yorkeko Unibertsitateko Tisch School of the Arts izenekoan eta urte bat egin zuen atzerrian Londresko Unibertsitateko Queen Maryn ikasten. 2010ean *The Slope* websaila zuzendu zuen eta *Nose Job* film laburra. Ospe handiagoa eskuratu zuen *Appropriate Behavior* (2014) bere lehen film luzearekin (Sundanceko zinema-jaialdian saria eskuratua). *Girls* sailaren denboraldietako batean aktore lana egin du.

Hizketaldira gonbidatua: Gracia Trujillo. Doktorea Soziologian eta irakaslea Hezkuntza Fakultatean, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Soziologia Aplikatuko Sailean. Aktibista lesbiana, bere ibilbide profesionalak ikusgai egin du Estatu espainoleko mugimendu lesbikoaren historia berreskuratzetik jazarpen transfobikoraino edo heterosexualak ez diren gurasotasunetaraino hainbat liburu eta artikulutan: *Deseo y resistencia. Treinta años de movilización lesbiana en el Estado español (1977- 2007)* (2009); *Profesorado, sistema educativo y acoso escolar, ¿dónde estamos y qué está fallando?* (2015); eta *Mi cuerpo es mío: Parentalidades y reproducción no heterosexuales y sus conexiones con otras demandas* (2016).

## 13

HILAK **13** | OSTEGUNA | **11:00etan eta 20:00etan**

# Singled [Out]

**Mariona Guiu eta Ariadna Relearena** (Espainia eta Turkia, 2017, 90')

Australiako Spanish Film Festival jaialdiaren 21. edizioan (2018) izan zuen arrakastaz gain, Valladolideko Seminci jaialdiaren 62. edizioan aurkeztu da (2018), Bruselako "Millenium" zinema dokumentalaren jaialdian (2018) eta Huescako Muestra del Cine de Mujeres erakustaldian (2019), besteak beste.

*Singled [Out]* filmak bost emakumeren istorioa kontatzen du, munduko lau muturretan. Manu Bartzelonan, Jules Australian, Shu eta Yang en Shanghain, eta Melek Istanbulen. Bikotean bizitzeko ulertutako eta sortutako mundu batean, bost emakume horiek komunean dute ezkongabeak direla, eta ezkongabetasun horrek beren bizitzan jokatzen duen rola ulertzen saiatzen dira. Lau istorio horien bidez, emakumeen ezkongabetasunaren gaineko kontakizuna aldatzen saiatzen da filma; "singlekeria"ren ondorioz (ezkongabeen estigmatizatze sistematikoa) emakumeek aurre egin behar dieten antsietateetan sakontzen du; eta, era berean, gure gizarteetan jarraitu beharreko eredu moduan bikoteari eusteko kultura desberdinek iraunarazten dituzten mitoak nabarmentzen ditu.

**Mariona Guiu**. Zuzendaria, gidoilaria eta, Ariadna Relearekin batera, Suricata Storiesen sortzailea. Humanitateetan lizentziaduna, Bartzelonako errealizadore hau Melbournen bizi da eta lan egiten du. Telebistako hainbat programatarako erredaktore-lanetan hasi zen, eta gero etorri ziren bideoklipen, online piezen eta Biography Channelerako *Revelados* sailaren zuzendaritza. Zuzendarikide aritu da sari ugari eskuratu duen *Distancias* dokumentalean (2011), Kubako diasporari buruzkoan, eta *Las voces pequeñas* (2013) lanean, Guatemalako herrixka batean ikus-entzunezko tailer baten esperientziari buruzkoan. *Singled [Out]* filmean estreinaldia egin du zuzendari-, gidoilari- eta ekoizle-lanetan.

**Ariadna Relea**. Zuzendaria, gidoilaria eta, Mariona Guiurekin batera, Suricata Storiesen sortzailea. Errealizadore hau lizentziaduna da Psikologian, eta Telebistako Erreportaje graduondoko bat du. Telebistarako dokumentaletan eta kultura-arloko programetan aritu da ekoizpeneko zuzendari-, errealizadore- eta gidoilari-lanetan. Bere lanen artean hauek nabarmendu behar dira: *Herederas* (2009), saharar emakumeen orainari eta geroari buruzko dokumentala; *Memoria y olvido de una guerra* (2009-2010), Espainiako 36ko gerra Mallorcan jorratzen duen telesaila; eta *Illes de Futur* (2014-2015) erresilientziaren kontzeptupean bizimoduei buruzko dokumentalen saila. *Singled [Out]* bere lehen film luze dokumentala ere bada.

Hizketaldira gonbidatua: Ariadna Relea, filmaren zuzendarikidea.

**EMANALDI GUZTIAK**
**GOLEM BAIONA ZINEMETAN IZANGO DIRA**

## 14

HILAK **14** | OSTIRALA | **11:00etan eta 20:00etan**

# Varda by Agnès

**Agnès Vardarena** (Frantzia, 2019, 115')

Errealizadorearen hilondoko lana, Berlingo Jaialdiko Sail Ofizialean (lehiaketatik kanpo) aurkeztua 2019an.

Agnès Vardak erabaki zuen zinemarako egingo zuen azken ekarpena *Varda by Agnès* dokumentala izango zela. Zinema-irakaspena da, bere ibilbide artistikoaren berraztertzea, zuzendari-moduan bere esperientziari buruz argi egiten duena, berak "zinemako idazkera" deitu zuenaren gainean zuen ikuspegi pertsonala emanez, Parisko Daguerre kaletik Los Angeleseraino edo Pekineraino bidaiatuz. Vardak kontatzen du pantailan, ibilbide luzea izan badu, hori izan dela zinema egiteko izan dituen hiru zutabeengatik: "inspirazioa, sorkuntza eta emaitza partekatzea".

**Agnès Varda**. Joan den martxoaren 29an hila, errealizadore emankor eta original honek berrogei piezatik gora ditu film laburren, dokumentalen eta film luzeen artean. Horrez gain, argazkilaria, bideo-instalatzailea eta *Nouvelle Vague* ezaugarritu zuen estiloaren aitzindarietako bat izan zen. Era berean izan zen aitzindaria emakumeek egindako zineman eta zinema feministan, eta bere lanek, izaera errealista eta soziala ez ezik, estilo esperimental ezaugarria ere badute. Bere ibilbidean, hainbat sari eskuratu zuen: Urrezko Lehoia Veneziako Zinema Jaialdian, *Sans toit ni loi* (Bizilekurik eta legerik gabe) filmarengatik, César saria (2009) eta Frantziako Akademiako René Clair saria, *Las playas de Agnès* (2008) biografia dokumentatuarengatik, besteak beste. 2017an, Donostiako Zinemaldiko Donostia Saria jaso zuen, eta urte horretan beran Ohorezko Oscar saria bere ibilbidearengatik.

Hizketaldira gonbidatua: Begoña Del Teso, kazetaria, zinema-kritikaria eta Diario Vasco egunkariko erredaktorea. Hainbat hedabidetan lan egin du, euskaraz eta gaztelaniaz: Berria egunkariaren korrespontsala izan da Cannesen eta Berlinen, eta zinemako kritikaria eta komentarista Euskadi Irratian. Era berean, elkarlanean aritzen da Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian eta hiri horretako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astean.

## 13

HILAK **13** | OSTEGUNA | **17:30ean eta 22:30ean**

**FILM LABURRAK FEMENINOAN**

cortos en femenino

Selección realizada por **TRAMA** (Coordinadora de Muestras y Festivales de cine, vídeo y multimedia realizado por mujeres)

**Cerdita** **Carlota Peredarena** (Espainia, 2017, 14'). Sara obesitate-arazoak dituen nerabe bat da, umemoko batzuen isekek ikaratuta bizi dena, beldurra posizioz aldatzen den arte.

**Dúctiles** **Marisa Benitorena** (Espainia, 2017, 2' 4''). Garai bakoitzeko gizarteen eta gertakari historikoen gustura erabili eta moldekatu izan da emakumeen irudia, eta horrek ekarri du kode bisual eta klixe desberdinak sortzea. Eredu horiek modu batera edo bestera iragazi dira botere maskulinoaren estamentuetatik, eta emakumeei jokaera etiko eta moraleko arauak eta berariazko eginkizun eta espazioak egozteko erabili izan dituzte.

**No me despertéis** **Sara Fantovarena** (Espainia, 2017, 21'). Jone DBHko 4. mailan ikasten ari den nerabe bat da, erreibindikazio-giro eta giro abertzalea duen institutu batean. Egun batean, ordea, aitak kargu politiko bat hartuko du Eusko Jaurlaritzan, eta, ondorioz, Jonek bizkarzaina izan beharko du eta ordura arteko bizimoduari uko egin beharko dio.

**Para ayer** **Celia Galanena** (Espainia, 2017, 6'). Gorantz doan produktore bat edozer gauza egiteko prest egongo da, publizitate-agentzia saritu baten enkargua lortzeko.

**Seattle** **Marta Aledorena** (Espainia, 2017, 19'). Iván pilotuaren eta Amanda hegazkineko laguntzailearen arteko maitasun-istorioa, munduko hiri desberdinetan dituzten topaketen bidez.

gogoan zaitugu betiko
Silvia

**SAIOAREN PREZIOA: 5 €**

**www.muestracineymujeres.org/**

LG NA 1398-2019

Colaboran
Laguntzaileak:
Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

Organizan
Antolatzaileak:
golem
Fundación Fundazioa IPES